

azpeitian zer?

Udal aldizkaria



172. zenbakia

GUZTION ONGIZATEA HOBETU ASMOZ



Azpeitiarren bizi-maila hobetzeko helburuarekin, menpekotasuna duten pertsonentzat gaueko etxez etxeko zerbitzu berritzailea jarri du abian Azpeitiko Udalak



Ogasuna

Tasa eta zergak
izoztea erabaki du
Udalak, orokorrean



Herri bizia

Azpeitia eta Hazparneren
senidetza indartzeko lanean
ari dira bi udalerriak




Ale honetan zer?

- 3 Azpeitia ezagutzen eta erabakiak
- 4 Turismoa
- 6 Ekintzailetasuna sustatuz
- 8 Tasa eta zergak
- 10 Gaueko etxez etxe zerbitzua
- 14 Hazparnerekin senidetza
- 16 Kirol eskaintza
- 18 Eraikitzen

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailtza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74

Botika txandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74 • Urriaren 16, 24, 25 eta 29.
ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2, • Tel.: 943 81 13 50 • Urriaren 14, 19, 22 eta 27.
BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49 • Urriaren 15, 23 eta 28.
EIZAGIRRE. Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74 • Urriaren 17, 18, 20 eta 30.
JACOME. Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58 • Urriaren 21, 26 eta 31.

Azpeitia ezagutzen



Inaxi eta Patxi pertsonaien bidez, Azpeitiko historia ezagutzeko balioko diguten herriko datu esanguratsuak ikasteko aukera izango dugu aurrerantzean tarte honetan. Ezagutu Azpeitia, bere historia eta ondarea!



Erromatarren garaian bardularrak bizi ziren gure inguruan. Ikerlari batzuek vesperies hiria azpeitia inguruan zegoela uste dute.

Nahiz eta gure inguruan ezarpen handirik ez izan, ardoa, galtzadak eta harrizko zubiak beraiek erakutsitakoa dira.

Erabakiak

Irailaren 8ko bilkuran honako erabakiak hartu ziren:

- 1.- 2015eko uztailaren 6an egindako bilkurako akta aho batez onartu zen.
- 2.- Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusirako udalaren ordezkarien ordezkoen izendapena aho batez onartu zen.
- 3.- Drogomenpekotasunen aurkako Azpeitiko udalariaren plana 2019ra arte aho batez onartu zen.
- 4.- Loiolako Jesusen Lagundiaren eta Azpeitiko udalaren arteko hitzarmena, Magdalenako ospitalaren aldameneko lursailaren erabileraren inguruan, aho batez onartu zen.
- 5.- Azpeitiko udalaren eta Eljren arteko hitzarmena trafikoko zehapenen jakinarazpenak eusko jaurlaritzaren plataforma elektronikoa jartzeko, aho batez onartu zen.
- 6.- Adierazpen instituzionala: Siriako egoeraren inguruan, aho batez onartu zen.

Urriak 6ko Udalbatzan berri, honakoak:

- 1.- 2015eko irailaren 8an egindako bilkurako akta aho batez onartu zen.
- 2.- Urrestilla auzoko Uranga baserrien alboan dagoen herribidearen deslindea aho batez onartu zen.
- 3.- Uraren Euskal Agentzia eta Azpeiko Udala elkar-lanean aritzeko protokoloa, aho batez onartu zen.
- 4.- Lasaoko auzoan, aisialdi eta kultura erabilerarako aurrefabrikatutako modulo bat eraikitze proiektuaren baitan, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eta Azpeitiko udalaren lankidetzaren hitzarmena aho batez onartu zen.
- 5.- Oñatz auzoko sarearen mantenimendua egiteko lankidetzaren hitzarmena Azpeitiko Udalaren eta Gipuzkoako Urak S.A.aren artean, aho batez onartu zen.
- 6.- Azpeitiko Udalaren eta dendartean arteko hitzarmena aho batez onartu zen.
- 7.- 2016. ekitaldirako Udalaren udal-zerga agintarauak hasierako izaeraz EH Bilduren botoekin onartu zen, EAJ taldea aurka agertu zen.
- 8.- Urola Erdiko Taxi zerbitzuaren tarifak 2016. ekitaldirako aho batez onartu zen.
- 9.- Udalaren 2016. ekitaldiko aurrekontuan 5. Kreditu Aldaketa aho batez onartu zen.
- 10.- Udalaren 2016. ekitaldiko aurrekontuan 4. Kreditu Aldaketaren berri eman zen.

Mozioak:

- 11.- Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean dihardutan erakundeak babesteko eta euskaldun internazionalisten epaiketaren aurka mozioa aho batez onartu zen.

Udako turismoak marka guztiak hautsi ditu eta salto kualitatiboa eman da

Loiolako turismo bulegoaren datuen arabera, %11 igo da bisitari kopurua abuztuan



azpeitiko turismoaren gorakada nabaria da urtez urte eta azken udako datuek, marka guztiak apurtu dituzte. Izan ere, Loiolako turismo bulegoak bildutako datuen arabera, eta iazko abuztuko datuekin alderatuz, %11 igo da gurera etorritako bisitarien kopurua. Guztira, uztailan eta abuztuan, 8.055 bisitari izan dira turismo bulegoan, informazio eske. Baina bada beste datu esanguratsu bat; alojamenduari dagokionez, bailarako alojamendu guztiak beteta egon dira: %100ean abuztu osoan, eta %80 ingurua, uztailan.

Baino datuez gain, kualitatiboki ere salto garrantzitsua eman dugu, bereziki nobere kasa etortzen diren turista kopurua igo delako. Taldean etortzen direnek normalean Loiola bisitatzen dute bakarrik, baina euren kasa etortzen direnek Azpeitia eta inguruak ere bisitatzen dituzte, eta hori nabaritu da herian, turista asko ibili baita.

“Loiolako turismo bulegoan Azpeitiari buruzko eskuomri asko eskatu dituzte bisitariak, eta eskuomri horiek eskuan dozenaka lagun ikusi ditugu herian; Azpeitiko parrokia egunero egon da zabalik eta hura zaintzen aritzen direnek jakinarazi digute ehunka lagun pasatu direla uda sasoian. Beste horrenbeste gertatu da garbitokian, bi eraikin horien gertutasunak batetik bestera erakari ditu turistak”, agertu du Agustín Lizarralde Turismo zinegotziak.

2015eko uztailan eta abuztuan Loiolako turismo bulegotik igarotako turisten inguruko hainbat datu:

JATORRIA	EH	KATALANIA	ESTATUA	ATZERRIA
UZTAILA	609	214	1164	839
ABUZTUA	933	534	2.358	1404
GUZTIRA	1.542 (%19)	748 (%9)	3.522 (%44)	2.243 (%28)

Loiolan kokatutako turismo bulego berriak, bisitari kopuruaren igoeran izan duen eragina ikusteko azkarregi da, baina martxan izan den aurreneko hilabeteak utzitako datuek baikor egoteko arrazoiak ematen ditu. “Gogoratu turismoak Azpeitia eta bailarako ekonomia indartzeko aukera ezinhobeak ematen dituela, azken urteotan ahalegin berezia egiten ari garela aukera horiek indartu eta sustatzen, eta horretan segitzeko konpromiso sendoarekin jarraituko dugula lanean”, gaineratu du Lizarralde.

TURISTAK	2015
TALDEAN	4.333
BAKARKA	3.722
GUZTIRA	8.055



Uda honetan turismoak izan duen bilakaera positibo hori borobiltzeko, abuztu bukaeran Europako Segia Txapelketa jokatu zen Azpeitian. Egitasmo honek Azpeitia Europan bistaratzeko aukera eskaini zuen. Suitza, Alemania, Austria, Hego Tirol eta Esloveniatic 250 lagunetik gora etorri ziren eta hiru egun eta astebete bitartean igaro zituzten bertan.

“Gurean izan zirenek bereziki esker-tu digute hemen izandako harrera eta txoratzen joan direla esan digute. Hori oso garrantzitsua da, euren herrietara itzuli eta ahoz ahoko propaganda hori oso eraginkorra delako gure herriko turismoa sustatzen eta indartzen jarraitzeko”, adierazi du Estitxu Elduaen Kirol batzordeburuak.

Azpeitiko altxor ezkutuak, agerian

Bisitarien zatitza ezkutuan gelditzen diren altxor ugari ditugu Azpeitian eta hauek ezagutaraztera emateko asmoz, bisita gidatuak antolatu ditu Udalak beste hainbat eragilerekin batera. “Ezkutuko altxorrak” izeneko ekimenaren baitan, Loiola, Soreasuko parrokia eta Madalena bisitatzeko aukera izango da. Parrokia eta Madalenako ospitalea ezagutzeko bi aukera egongo dira (azaroaren 21ean eta abenduaren 7an) eta Inaziotar Bidearen baitan, bi bisita gidatu berezi prestatu dituzte: Loiola-Zumarraga eta Zumarraga-Arantzazu. Bisita gidatuak aldeztu aurretik erreserbatu behar

dira 943 85 11 00 edo 943 15 18 78 telefonoetara deituz, eta izena emateko azken eguna bisitaren aurreko ostiraleko 12:00ak izango da.

Aurtengo berrikuntza, argazki lehiaketa da. Parte-hartzaileek, beraien esperientzia gustukoena argazki bidez erakutsi beharko dute, eta lanak abenduaren 15 bitartean bidali behar dira i-loiola@uro-laturismo.net helbidera. Sariak ondorengo hauek izango dira:

- 1. go saria: Asteburu bat bi pertsonentzat eskualdeetako nekazal-turismo

mo batetan. Alojamendua eta gosaria barne eta bisita gidatua aukera (2016ko urtariletik apirilera).

- 2. saria: Jardunaldi gastronomikoetako menu bat bi pertsonentzat eta bisita gidatu bat ekoizleen museo edo baliabideetara. (2016ko urtariletik apirilera).


- 3. saria: Bertako produktuen otarra.

Gainera, eta fideltasuna eskertzeko, bertako produktuen otarrak zozkatuko dira, 2015eko programan hiru bisita baino gehiago egiten dituzten bisitarien artean.

Bertako produktuak kontsumitzen dituzten ostalariei laguntzak emango dizkie Udalak

Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 31 izango da

herriko ekonomia sustatze bidean, Azpeitiko Udalak lehen sektoreari bultzada eman nahi dio, eta horretarako, bertako produktuen salmenta indartzeko ekimenak lantzen ari da. Hala, bertako produktuak erosten dituzten ostalariei diruz laguntzen ditu eta Azpeitiko jatetxe eta tabernetan egindako erosketak horien %50a itzultzen die Udalak, gehienez ere 400 euro. Diruz laguntzen diren erosketak herriko azokara etortzen diren baserritarrei, salmenta zuzena egiten duten produktoreei, bertako baserritar elkartei edota bertako produktuak on-line saltzen



dituzten webgunetan (baserritik.com, urolakostadenda.com) egindakoak dira.

Laguntza hau, herriko ekonomia suspertzeko helburua duen Azpeitiko Enplegu Planaren baitan kokatzen da, izan ere, neurri honekin bertako baserritar eta ekoizleei beren produktuak merkaturatzeko bide berriak irekitzen laguntzen zaie. Eskaerak dagoeneko egin daitezke Azpeitia Berritzenek Sindikatu Zaharreko 2. solairuan duen bulegoan, eta horretarako azken eguna urriaren 31 izango da.

Ekintzailetasuna indartzeko apustua

Azpeitiko Udalak balarako beste udal guztien izenean eskatu du laguntza eta Errezil, Aizarnazabal, Zestoa, Beizama eta Azkoitiko herritarrek ere aurkez ditzakete proiektuak



Ekintzailetasuna sustatzen jarraitzeko pausoak ematen jarraitzen du Udalak, balarako beste udalekin batera. Lanpostu berriak sortzea ezinbestekoa da egun pairatzen ari garen garai zailari aurre egiteko. Azken datuen arabera, Azpeitiko langabezia tasa %12koa da eta ekintzailetasuna giltza garrantzitsua izan daiteke tasa hori murriztu eta herriko ekonomia sustatzeko bidean. “Bizi dugun egoeraren aurrean, ekintzaile dinamismoa ezinbesteko faktorea da hazkunde ekonomikoa eta garapena bultzatzeko, eta modu horretan aukera berriak sor daitezke. Proiektu edota ideak dituzten ekintzaileei modu integral batean laguntzean dago gakoa, eta diru-laguntza hauen bitartez, ideiak dituztenei bideragarriak al diren jakiten lagundu eta bideragarriak diren proiektuak abian jartzen lagunduko zaie”, adierazi du Eneko Etxeberria alkateak.

Honela, Lanbiderekin elkarlanean, enpresa idea bat garatzeko eta enpresa-

proiektua abian jartzeko laguntzak emango dituzte eskualdeko udalek. Eskerak, azaroaren 2 bitartean egin behar dira Azpeitiko udaletxean.

Urola Erdia balarako bizilagunek azaroaren 2ra bitartean aurkeztu ahal dituzte eskaerak Azpeitiko udaletxean

Diru-laguntzen inguruko zehaztapenak:
1) Enpresa-idea bat garatzeko. Ideia bat izan baina bideragarri den edo ez jakin nahi dutenentzat. Gehienez, 8 herritarrei emango zaie laguntza.

Fase honetako laguntza gehienez ere 1.000 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko.

Zenbateko hori % 15 areagotuko da 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago badituzte (eskaera aurkezten duten ulean), eta beste % 15 emakumeak badira.

2) Enpresa-proiektu berriak martxan jartzeko. Ideia garatuta, abian jartzea bakarrik nahi duenarentzat. Lerro honetan gehienez 7 laguntza emango dira.

Gehienez ere 1.500 euroko laguntza emango zaio sustatzaile bakoitzari.

Zenbateko hori % 15 areagotuko da 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago badituzte (eskaera aurkezten duten ulean), eta beste % 15 emakumeak badira.

Bi lerro hauetara aurkezten diren pertsonak bete behar dituzten baldintzak www.azpeitia.eus webgunean kontsultatu daitezke.



Azpeitiko merkataritza txikia indartzeko hitzarmena

Dendarteanek (Gipuzkoako Merkataritzaren Bilkura) eta Udalak akordioa lortu dute eta horri esker bulegoa Azpeitian egongo da

Azpeitiko Udalak eta Dendartean, Gipuzkoako Merkataritzaren Bilkurak, hitzarmena sinatu dute herriko merkataritza txikiaren alde lan egiteko. “Merkataritzak herriko ekonomian duen pisua garrantzitsua da eta hau indarberritzea ezinbestekoa da. Egoera zaila ari da igarotzen eta neurriak hartu beharra dugu. Egiten dugun guztia inoiz ez da nahikoa izango baina lanpostuak eta aberastasuna sortzeaz gain, herriari bizia ematen dio eta horregatik borrokatu eta lortu dugu Dendartean Azpeitira ekartzea”, agertu du Agustín Lizarralde zinegotziak.

Honela, Dendarteanek bere bulegoa izango du Azpeitiko Sindikatu Zaharrean eta egun osoz arituko da lanean bertan Xabier Aldalur teknikaria, 08:30etik

13:30era eta 14:30etik 17:30erako ordutegian. Udalak lanaldi osoko pertsona horren zati bat ordainduko du, %25, beti ere, gehienez 8.000 euro.

“Merkataritza txikiak herriko ekonomian duen pisua garrantzitsua da eta hau indarberritzea ezinbestekoa da”

“Behin Azpeitian kokatuta eta hemengo merkataritza elkarrekin zuen hutsune teknikoak ikusita, Udala eta

Bertan elkarrekin adostu genuen Dendarteaneko bulegotik merkataritza elkartari laguntzea Bertaneko teknikari funtzioak betetzeko eta merkataritza txikia indartzeko lan egiten jarraituz”, adierazi du Aldalurrek.

Udalak eta Dendarteanek sinatutako akordioari esker, Azpeitiko merkataritzarentzat oso garrantzitsuak izango diren hainbat egitasmo gauzatzeko direla hurrengo asteetan aurreratu du Lizarralde; “Fideliza programa da esanguratsuenak, herritarren fidelizazioa lortzeko asmoz. Badakigu ez dela nahikoa baino aurrera egiteko beste elementu bat dela uste dugu, eta Azpeitia aukeratzea honetarako, beste edozein herri hautatu beharrean, benetan garrantzitsua da”.

Tasa eta zergak, orokorrean izoztuta

Ekonomia suspertzea, aberastasuna banatzea eta zerbitzu publikoen jasangarritasuna bermatzea izan dira erabilitako irizpideak



Tasa eta zerga agintaraua onartzeko egindako udalbatza.

azpeitiko Udalak zerga eta tasak izoztea erabaki zuen urriaren 6an egindako Udalbatzan. Erabakia EH Bildu taldearen aldeko bozkekin onartu zen, EAJ alderdiak aurka bozkatu baitzuen. Modu honetan, eta azken urteko KPI negatiboa izan dela kontutan hartuta, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga, zaborrarena, eraikuntza instalazio eta obren gainekoa, udal jabari publikoaren erabileragatik ordaindu beharrekoa, ekonomia jardueren gainekoa eta hiri-lurren balio gehitzearena, eraikuntza instalazio eta obren gaineko tasak, besteak beste, bere horretan izango dira 2016 urtean.

“Herritarrak zailtasunak pasatzen ari dira, eta uste dugu arrazoizko erabakia dela tasa eta zergak izoztea, are gehiago ikusirik ditugun zerbitzuak jasangarriak direla eta udaletxeko sarreraren eboluzioa oso positiboa dela azken bi urteotan”, adierazi du Eneko Etxeberrria alkateak.

Tasa eta zerga agintaraua aztertzerako orduan, hiru irizpide erabili ditu Udal Gobernuak kontutan;

- a) Ekonomia suspertzeko tresna izatea
- b) Aberastasuna banatzeko tresna izatea
- c) Tasen bidez zerbitzu publikoen jasangarritasuna bermatu eta arduraz jokatzea

“Herritarrak zailtasunak pasatzen ari dira, eta uste dugu arrazoizko erabakia izan dela tasa eta zergak izoztea”

Honela, ekonomia suspertzen jarraitzeko hainbat neurri adostu dira, eta hobari berriak ere onartu dira. “Gure apustua ekonomia jardueraren alde egitea da, eta horregatik azken urteotan onartutako hobariak gain, berriak proposatzen ditugu 2016 urterako. Batez ere, enpresa berriak sortzeagatik eta baita lanpostu finkoak sortzeagatik ere”, azaldu du alkateak.

Hala, Ekonomia Jardueraren Gaineko zergari dagokionez, Azpeitian jarduera berriak hasten dituzten enpresei %50eko hobaria izango dute 5 urtetan zehar. Gainera, enplegua sortzen duten enpresek ere deskontua izango dute, beti ere, %30ekoa gehienez; baina horretarako lanpostu finkoak sortu beharko dituzte.

Era berean, lehen sektorearen aldeko apustuarekin jarraituz, azokan postua jartzen duten baserritarrei %5ean jaitsi egingo zaie tasa.



Horrez gain, iaz onartutako hobariak mantendu egingo dira. Hauek dira iaz onartu eta aurten mantentzen diren hobariak.:

- Herrian negozio berria ireki edo moldaketak egiten dituztenek obren baimena %75 merkeago ordaintzeko aukera izango dute.
- Industriako ibilgailuek (kamioiak, atoi-tzeak, traktoreak edo autobusak) ez dute izango igoerarik.
- Industriako hobariak banaka eta kasuz kasu aztertuko dira.
- Sustapen planarekin lotuta, baserritarrek eta bertako produktuak saltzen dituztenek %50eko hobaria eskuratuko dute.
- Higiezin industrialetan ordaintzeko dituzten enpresei zergen atzeratzea onartuko zaie.

Kirol Patronatuko zerbitzuen tasa %3 igoko da, urtean 8'75 euro, zerbitzuen hobekuntza konpentsatzeko

“Egoera ekonomikoa pixkanaka-pixkanaka hobetzen ari bada ere, eta Azpeitiko langabezia tasa %12ra jaitsi bada ere, oraindik asko dago suspertzeko, eta sendotze horretan laguntzen segitzeko asmoz erabaki ditu bonifikazio hauek Udalak”, esan du Etxeberriak.

Modu honetan, tasetan progresibitatea aplikatuko da, hau da, gehien dutenek gehien ordainduko dute, eta gutxien dutenek gutxiago. Udal ordezkariak gogoratu nahi dute hobariak daudela zailtasunak dituztenei laguntzeko.

Hala ere, eta zerbitzu publikoen jasangarritasuna bermatzeko ezinbestean, kirol zerbitzuengatik ordaintzen den tasa %3 igoko da, zerbitzu honek izan dituen hobekuntzen kostuei aurre egiteko. Dirutan, urtean 8,75 euroko igoera ekarriko die honek Kirol Patronatuko bazkideei, hilean 73 zentimokoa.

“Begi bistakoa da zerbitzuak bereziki hobetu eta handitu direla eta uste dugu beste herrieekin konparatuta gure kuota merkea dela. Besteak beste, aldagela berriak egin dira, azpiegiturak berritu, gimnasioan begiralea jarri da erabiltzaile guztientzat, doan, eta sauna zerbitzua ere dohainik dute bazkide guztiek. Inguruko herrietako prezioekin alderatuz, adibidez, sendiko abonua 300 euro ingurukoa da Azpeitian; Azkoitian, 468 eurokoa, Zumaian, 441 eurokoa eta Tolosan, 594 eurokoa”, agertu du Kirol eta Ogasun sailetakoa batzordeburu den Estitxu Elduaienek.

Ordaintzeko laguntzak

Hala ere, herriko langabetuei, pentsiodunei, erretiratuei, eta ikasleei gogora arazi nahi zaie Kirol Patronatuak hobariak eskaintzen dizkietela eta tasa hauek ordaintzeko arazoak dituzten familietako haurrentzat ere bekak edo diru-laguntzak ere badaudela.

Horrez gain, ordainketa aldi batean egin beharrean bitan egiteko aukera ere badago. “Ordaindu ezin duenentzat bideak irekitzen ditugu eta irekiko ditugu Gizarte Zerbitzueta lantzekin, kirola egiteko aukerarik gabe inor gera ez dadin”, gaineratu du Elduaienek zinegotziak.



 Ezkerretik hasita; Ainhoa Beristain, Edurne Zubia, Eneko Etxeberria eta Begoña Beobide.

Gaueko etxez etxeko zerbitzu pilotuarekin oso gustura daude erabiltzaileak

Proiektua abuztuan hasi zen martxan 10 erabiltzailerekin, eta horretarako 3 pertsona kontratatu dira; bi auxiliar eta gizarte langile bat

azpeitiar guztien ongizatea bermatzea da Udalaren lehentasuna; haur, heldu zein menpekotasuna duten herritarren bizi kalitatea etengabe hobetzea bilatuz. Asmo horretan, guztiz berritzailea den proiektua jarri du abian Azpeitiko Udalak; gaueko etxez etxeko laguntza. Iraurgi Berritzen eskualdeko garapen agentziaren bitartez sortutako esperientzia pilotua, abuztuan jarri zen abian eta bakarrik bizi diren adineko eta menpekotasuna duten 10 herritarrek hartzen dute parte bertan.

Azpeitiko azken datuen arabera, guztira 14.788 biztanle ditu herriak eta horietatik 3.008 (%20,34) 65 urtetik gorakoak dira. Era berean, Azpeitiko biztanleriaren artean, 598 dira menpekotasuna duten herritarrak (%4,04) eta zenbateko horren %72,25 dira 65 urtetik gorakoak, eta %27,75, berriz, gazteagoak.

“Administrazioak menpekotasuna duten pertsonen beharrak asetu behar ditu eta honelako proiektuekin aurrerapauso garrantzitsua ematen da”

“Gizartea zahartzen ari da eta pertsonak zahartzean, menpekotasun gehiago izaten dute. Horregatik, administrazioak pertsona hauen beharrak asetu behar ditu eta honelako proiektu berritzaileekin aurrerapauso garrantzitsua ematea lortzen da, ekonomia alorreko esparru berri eta estrategikoa lantzen ari baikara”, agertu du Gizarte Zerbitzuetak zinegotzi den

Ainhoa Beristainek. Izan ere, orain arteko etxez etxeko laguntza, eguneko zerbitzua izatera mugatzen zen. Orain, pertsona bat etxez etxe igarotzen da gauean laguntza behar duten pertsonak nola dauden ikusi edota dituzten beharretan laguntzeko.

Proiektua abian jartzeko hiru pertsona kontratatu dira; bi auxiliar eta gizarte langile bat. Abuztu hasieran ekin zitzaion eta urte amaieran amaituko da, beraz, oraindik probako fasean jarraitzen du, baina lehenbiziko balorazioa positiboa da. “Guztira 10 erabiltzaile ditugu eta denak oso pozik daude zerbitzuarekin”, adierazi du Beristain zinegotziak.

Zerbitzu berritzailea urtarrila bitartean egongo da eta behin amaitutakoan balorazio sakonagagoa egingo da; orduan aztertuko da etorkizunean eskaini beharreko zerbitzua den ala ez.



“Erabiltzaileen bizi kalitatea hobetu da”

Nerea Amenabar

Proiektu kudeatzailea Iraurgi Berritzenen eta gaueko etxez etxeko laguntza zerbitzuaren sustatzailea

Menpekotasuna duten pertsonen sektorea etorkizuneko lan munduarentzat estrategikotzat detektatu zuen Udalak eta hau aztertzeko Nerea Amenabar kontratatu zuen. Azterketan, menpekotasuna duten pertsonen zaintza etxean jaso nahi dutela ikusi zen eta honi aurre egiteko, gaueko etxez etxeko zerbitzua jarri zen abian abuztuan. Zerbitzua berritzailea da eta bertan, auxiliar bat gaueko 00:00etatik goizeko 07:00ak bitartean etxez etxe joaten da menpekotasuna duten pertsonen zaintza bermatzeko.

1. Zer desberdintasun ditu eguneko zerbitzuarekin alderatuta?

Gaua sentibera da eta bakardadea sentitzen dute askok, beldurra ere agertzen da, ez baitago ere argitasunik. Tontakeria dirudi baina desberdintasuna hor dago, egunean zehar beti izan dezakete norbait ondoan eta argia dago, segurtasun handiagoa alegia. Zerbitzuan zentratzen bagara, desberdintasuna zera da pertsona bat menpeko bat baino gehiago zaintzeaz arduratzen dela. Zaintza bera ematen zaio, baina gau osoan zehar ez da egoten auxiliarra menpeko pertsonarekin. Auxiliarrak etxe bakoitzean 20-30 minutu egiten ditu bertara hurbiltzen den bakoitzean eta erabiltzaileen beharren arabera auxiliarra gauean etxe bakoitzera hurbilduko den maiztasuna zehazten da.

2. Zeintzuk dira gauean sortzen diren beharrak?

Behar desberdinak egoten dira erabiltzailearen profilaren arabera: pixoihalak aldatzea, komunera joaten laguntzea, medikazioa ahaztu egin zaiela eta ematea, ezin dutenei lo hartu kamomila edo ezki-ura ematea, aldaketa posturalak, krema ematea mina duten alderdietan... Behar horiek EBAP-en (Erabiltzailearen bakarkako arreta-plana) adierazten dira.

3. Nola joan dira lehenbiziko hilabeteak? Zein da hasierako balorazioa?

Ondo, gustura gaude. Programa pilotua izanik, uste dut irekiagoa izaten uzten duela. Hasierako balorazio oso positiboa izaten ari da, erabiltzaileak oso gustura daude zerbitzuarekin. Gainera, zerbitzuari esker, familia bat edo beste konturatu da beren senitartekoak zaintza gehiago behar zuela.

Bestalde erabiltzaileek zein familiak lasaitasuna sumatzen dute, eta horrek gauean lo egiten ere laguntzen die. Badakite zer edo zer gerta dakiekeela ere laguntza izango dutela. Era berean, badaude bikotekideak zerbitzua hasi aurretik lo ezin zutenak egin beren bikoteez arduratu behar zutelako eta beraiek ere gaixotzen hasiak ziren.

Beraz, programa honi esker beren bikoteak lo egiten dute. Laburbilduz, bai menpeko pertsonaren eta baita bere zaintzaz arduratzen ziren famili kideen bizi kalitatea hobetu da zerbitzu berriari esker.

4. Norbaitek parte hartu nahi badu, ba al du oraindik aukerarik izena emateko?

Bai, noski. Hemendik animatzen ditugu informazioa eskatzera, edota edozein zalantza izanik ere lasai deitu edo gertura daitezela Gizarte Zerbitzuetak bulegora edota 943 15 71 92 telefonora deitu dezatela.

5. Urtarrila arte mantenduko da zerbitzua. Gero proiektuak aurrera egiteko, zer bete beharko du?

Abenduaren 30ean amaitzen da zerbitzua. Nahia zerbitzuak aurrera egitea da, baina horretarako bete behar dituen baldintzak honakoak dira: erabiltzaileak jarraitzea eta erabiltzaile berriak ere topatzea zerbitzua sostengatzeko. Eta, bestalde, agian alderdirik potolo eta zailena baliabide ekonomikoak liriteke. Orain, kostu sinbolikoa du baina zerbitzu hau bideragarri izateko erabiltzaile bakoitzeko kostua altuagoa izan behar da eta ezberdintasun hau gainditzea da erronka hilabete hauetan.



 Azpeitiko Udaleko, Eusko Jaurlaritzako, Aldundiko, Gureak-eko eta Eroskiko ordezkariak inaugurazioan.

Urritasuna duten pertsonen kudeatutako lehenbiziko denda, Azpeitian

Saltokia herrira ekartzea lortu du Udalak, arlo ekonomikoa eta soziala indartzen jarraitzeko helburuarekin

Azpeitiko Udalak egindako kudeaketei esker, herrian zabaldu da urritasuna duten pertsonen kudeatutako lehenbiziko saltokia. Langile guztiek urritasunen bat duten lehenbiziko supermerkatua da bai Euskal Herrian eta bai estatu espainiarrean.

Honelako proiektu berritzailea Azpeitira ekarri izana nabarmendu du Eneko Etxeberria alkatea: "Azpeitia eta azpeitiarrak hobetzen ari garen seinalea da arlo sozialeko proiektu berritzaile bat herrira erakartzeko gai izatea. Hirietan egiten dira honelako proiektuak oro har, baina elkarlanari esker erakutsi dugu Azpeitia herri dinamiko eta bizia dela. Horregatik, Azpeitiko Udalak lanean jarraituko du arlo ekonomikoa eta soziala uztartzeko", agertu du.

"Hirietan egiten dira oro har honelako proiektuak, baina elkarlanari esker erakutsi dugu Azpeitia herri dinamiko eta bizia dela"

Gainera, Udalak duen Alde Zaharra biziberritzeko egitasmoarekin bat egiten du proiektuak, izan ere, supermerkatu berria Bustunzuriko Errebelean kokatuko da, herriko erdigunean. "Kokapena erabakitzerako orduan Azpeitiko Alde

Zaharra kontutan hartu da, erdigunea indartuko baitu. Era berean, inguruan dagoen merkataritzarekin guztiz bateragarria dela uste dugu", gaineratu du Etxeberriak.

Gureak eta Eroskiren proiektua abian jartzeko, urritasunen bat duten 10 pertsonako taldea osatu da, tartean azpeitiarrak, eta denek prestakuntza zehatza jaso dute. "Berrikuntza sozialaren proiektua den heinean, ekimenaren helburuak bi dira nagusiki; urritasunen bat duten pertsonen aukera berriak ematea, lan munduan sar daitezen, eta gizartean dauden askotariko gaitasunak eta trebetasunak ikusaraztea, publikoarekin harreman zuzena izanez", adierazi dute arduradunek.

Herritarrak formatzen jarraitzeko, ikastaroak

Udalak formakuntza propioko 3 ikastaro eskaintzen ditu; Mendeko pertsonen arreta, Janari erabiltzailea eta Hiri eta industria hondakinen kudeaketa

Formakuntzaren aldeko apustuarekin jarraitzen du Udalak. Lan munduan sartzeko prestatuta egotea ezinbestekoa da eta horregatik, herritarren etengabeko formazioan ahalegina egiten ari da Udalak. Honela, formazio propioa eskaintzen duen udal bakarrenetakoa da Azpeitiko. Honela, titulazio ofiziala duten ikastaroak honakoak dira:

- Mendeko pertsonen gizarte erakundeetan gizarte eta osasun arreta,
- Janari erabiltzailea
- Hiri eta industria hondakinen kudeaketa

Ikastaro hauetan ematen den ziurtagiriarekin, arlo horietan lan egin ahal dute ikasleek. Honela, azken 3 urteetan eskaini diren ikastaroetan 90 ziurtagiri inguru eman dira. Aurtengo ikastaroetan herritar ugari eman du izena eta dagoeneko abian jarri dira.

Ikastaro hauez gain, Hezkuntza sailak 2015-2016 ikasturterako beste 8 ikastaro prestatu ditu. Izen-emateko ikastaro bakoitzeko irakaslearekin jarri behar da harremanetan.

Marrazki artistikoa eta margolanak.

- Irakaslea: Marian Alberdi
- Harremanetarako: 943151797 eta 655026779.

Puntua (gurutze puntua, puntua eta makinako brodatua).

- Irakaslea: Rosario Ibaeta.
- Harremanetarako: 943 81 28 62.

Umetxo bat dugu gure bizitzan (0-1 urteko umeen gurasoei zuzenduta).

- Irakaslea: Edurne Salegi.
- Harremanetarako: 685 731 301.

Eskulanak (metal, egur eta poliureta-noaren gainean pintatzea; gauza zaharren berriztapena eta argazki zaharrek egin-dako kaxak).

- Irakasleak: Esther Etxarri eta Belen Zendoia.
- Harremanetarako: 653 714 972 eta 943 81 15 95.

Ebaketa eta jantzizigintza.

- Irakaslea: Maite Ostra.
- Harremanetarako: 943 81 24 64.

Haurdunaldirako ikastaroa (umeren baten zain dauden bikoteentzat).

- Irakaslea: Edurne Salegi.
- Harremanetarako: 685 731 301.

Gitarra.

- Irakaslea: Amaia Garmendia.
- Harremanetarako: 688 660 469.

Arabiera.

- Irakaslea: Houria Ghindri.
- Harremanetarako: 676 947 377.

Siriako errefuxiatuentzat babes herria da Azpeitia

Herritarrekin bilera irekia egingo da azaroaren 4ean 19:00etan, udaletxeko ganbaran

Azpeitia Siriatic ihesean ateratzen ari diren errefuxiatuak hartzeko eta laguntzeko babes herria da, iraileko udalbatzan, aho batez onartu ondoren.

Siriako eta gerrako errefuxiatuei laguntzeko pausoak aztertu ondoren, Azpeitiko Udalak Euskal Herriko beste udal eta erakundeekin harremanetan jarri da modu koordinatuan lan egiteko

eta herritarrekin bilera irekia egingo da egoeraren berri emateko. Udalak eta Gurutze Gorriak batera egingo duten bilera azaroaren 4ean izango da, 19:00etan, udaletxeko ganbaran eta herritarrak bertan parte hartzera animatu nahi dira.

"Azpeitiko Udalak eman nahi duen laguntza erreala izatea nahi dugu. Gure herria bera bakarrik alferrik ari

dela badakigu, eta beste erakundeekin lan egin eta adostasun zabalak lortu beharko ditugu. Aldundiarekin harremanetan gaude eta eman beharreko pausoen berri eman digu, horregatik, herritarrekin bilduko gara neurri eta epeak azaldu, babes herri gisa zer egin eta nola jokatu aztertu eta ekarpenak jasotzeko helburuarekin", agertu du Ainhoa Beristain Gizarte Zerbitzu eta zinegotziak.



 Azpeitiko zinegotziak Hazparne bisitatzen, herriko ordezkariekin.

Senidetza indartzeko lanean

Azpeitia eta Hazparneren arteko harremana sustatzeko talde eragile bat sortu nahi da

dagoeneko 28 urte igaro dira Azpeitia eta Hazparne (Lapurdi) senidetza zirenetik. Urte guzti hauetan harremana ahultzen joan da eta orain bi herriek, bien arteko lotura sendotzeko asmoa agertu dute eta lanean hasi dira. Hemen-dik bi urtera, senidetzak 30 urte beteko ditu eta data esanguratsua helburu jarrita, Azpeitiko Udala herriko talde eta elkar-teekin harremanetan jarriko da, Hazparneko senidetza inguruko talde eragile bat sortzeko asmoz.

Bitartean, bi udalerrien arteko lotura sustatzen jarraitzeko, Azpeitiko ordezkari-tza bat Hitzahats jaialdian izan zen. Hazparneko egitasmo honek euskara indartze-ko helburua du Lapurdiko udalerrian eta

ekimenarekin bat eginez, Udal ordezkari-erz gain, Azpeitiko taldeak eta herritarrak bertan izan ziren; Estitxu Elduaie eta Aitor Bereziartua zinegotziak, Argazki Elkar-teko eta Itsasi Dantza Taldeko kideak eta kazetariak, besteak beste.

**Bi udalerrien
arteko lotura
sustatzen jarraitzeko,
Azpeitiko ordezkari-tza bat
Hazparneko Hitzahats
jaialdian izan da**

Hazparneko aldetik, berriz, Udal ordezkariak, senidetza sustatzeko helburuarekin lanean ari den batzordeko kideak eta beste hainbat eragile izan ziren. Egunak, bi udalerrien arteko harreman soziala, kulturala eta instituzionalak indartzeko balio izan zuen.

Goizean zehar Hazparneko udalerria, inguruko auzoak, ikastetxeak eta industria ezagutzeko aukera izan zuten azpeitiarrek. Jarraian, Hitzahats jaialdiko gunera gerturatu ziren xare pilota modalitateaz eta muxikoez gozatzeko. Bazkal ostean, bertsolarien saioa izan zen eta ondoren, Azpeitiko Itsasi taldeak emanaldi ederra eta bizia eskaini zuen.



Kirolean ere, aniztasuna eta berdintasuna helburu

Kirol eskaintza zabaldu eta emakumeen partaidetza sustatzeko ahaleginetan ari da Azpeitiko Udala



Kirol Patronatuak denboraldi berriari ekin dio. Ikasturtea berrikuntza eta hobekuntzekin iritsi da, azpeitiarrek kirola egiteko aukera eta erraztasun gehiago izateko asmoz. Berdintasuna eta aniztasuna indartu nahi ditu Udalak eta bide horretan, emakumeen kirol jardueira sustatzeko lanean ari da. Horretarako, emakumeak taldean korrika egiteko taldea sortzeko ahaleginetan ari da. Aukera emakume guztiei zabaldu nahi zaie, korrika egiten hasi nahi dutenei, edo jada egin arren, korrika egiteko lagun taldea nahi dutenei. Elkarrekin irten arren, norberak jarriko ditu bere helburuak, eta horiek lortzeko Egoitz Arruti kirol-hezitzailea izango dute bidelagun. Parte hartu nahi duten emakume guztiek igerilekuan eman behar dute izena.

Tenislariekin elkarlanean, Sustraia Azpeitiko tenis elkartea sortu da.

Taldeak, teniseko eta padeleko ikastaro desberdinak antolatu ditu ekainaren 30a bitartean.

Azpeitiarrek kirola egitera bultzatzeko helburuarekin, aukera eta erraztasun gehiago jarri ditu Kirol Patronatuak

Ikastaroak 4 urtetik gorakoentzat dira eta lau taldetan banatuko dira partaideak; haurren ikastaroa 17:30etik 18:30era, hastapenetako saioak 18:30etik 19:30era, hobekuntzakoak 19:30etik 20:30era eta helduenak 20:30etik 21:30era.

Izen-eman nahi dutenek 606 341 608 edo 685 761 863 telefonoetara deitu behar dute edo [tenis.sustraia@hotmail.com](mailto:sustraia@hotmail.com) helbidera idatzi.

Bestetik, azken aldian tendentzia bihurtu diren Jump!, Krossfit edota Total training ikastaro berritzaileak eskaintzen hasi da Kirol Patronatua. "Herritarrek kirola egitera bultzatu nahi ditugu, kirolak sustatzen dituen baloreetan irmoki sinesten dugulako; osasuna hobetzen du, kiroltasuna lantzen da, gorputza hobeto ezagutzen laguntzen du, giza harremanak errazten ditu... Era berean, berdintasuna eta aniztasuna helburu ditugu", agertu du Kirol batzordeburu den Estitxu Elduaiek.

Ikastaro berriei gainera, azken ikasturteko eskaintza ere mantenduko da; igeriketa, pilates, aerobika, GAP, areto dantzak, cycling, gimnasia abdominal hipopresiboa... Eskaintza guzti hau igerilekuko instalazioetan emango da eta dagoeneko izen-emate epea zabaldu da. Informazio gehiagorako, 943 81 41 21 telefonora deitu behar da.

Estali gabeko igerilekuko datuak

Estali gabeko igerilekua ekainaren 13tik irailaren 13ra bitartean izan da zabalik eta guztira, 35.622 erabiltzaile izan ditu. Guztira, 93 egunetan izan da zabalik eta 36 egun besterik ez dira izan eguzkitsuak. Egun bakoitzeko batz besteko erabiltzaileak 383 izan dira, eta erabiltzaile gehien izan zen eguna, berriz, uztailak 3 izan zen, 1.395 pertsona izan ziren egun horretan.



Urola ibaia elkarlanean garbitzen

200 azpeitiarrek baino gehiagok hartu dute parte ingurugiroaren aldeko ekimenean

Ingurugiroarekiko ardura erakusten jarraitzen dute Azpeitiko herritarrek. Azken urteetan ohitura bihurtu den ibai garbiketa egin zen irailean eta bertan Udalak, herriko ikastetxeek eta Baigera jubilatuen elkarteak hartu zuten parte. Goizean zehar, Loiolatik hasi eta Ezkuzta bitarteko ibai zatia garbitzen ibili ziren eta bildutako hondakinekin bi kontainer bete ziren.

Herritarrei arduraz jokatzeko eskatu nahi die Ingurumen sailak, eta ahalik eta hondakin gutxien sortzeko bidea prebentzioa dela gogoratu

Guztira 200 herritar baino gehiagok hartu zuten parte eta guztiei eskerrak eman nahi dizkie Udalak. "Garbiketa urtero egiten dugun arren, hondakin asko biltzen jarraitzen dugu. Aurten beste bi edukiontzi haundi bete dira. Horregatik, herritarrei arduraz jokatzeko eskatu nahi diegu, eta ahalik eta hondakin gutxien sortzeko bidea prebentzioa dela gogoratu", agertu du Ainhoa Beristain zinegotziak.



Hona hemen Azpeitiko Udalak azken hilabeteetan egin eta hasi dituen obra desberdinen informazioa;

1.- KALE ASFALTATZEAK



Herriko hainbat kale asfaltatu dira; Foru Ibilbidea, Jose Artetxe, Euskal Herria, Artzubia, Urbitarte eta Urola kaleak.

Aurrekontua: 230.000 Euro

3.- KIOSKOA



Plazako obren baitan, kiosko zaharra berreraiki da.

Aurrekontua: 260.000 Euro

5.- IGERILEKUKO SARRERA



Igerilekuko eraikin kanpoan estalpea ezarri da, herritarrek euriarengatik babesteko.

Aurrekontua: 140.000 Euro

2.- PLAZA ETA GOIKO KALEKO ZORUA



Alde Zaharra oinezkatzeko prozesuaren baitan, Plazako eta Goiko kaleko zorua guztiz aldatu da.

Aurrekontua: 940.000 Euro

4.- LOIOLAKO ITURRIAK



Loiolako lorategiko iturri zaharra egokitu eta berria jarri da.

Aurrekontua: 1.700 Euro

6.- ALBERGA EGOKITZEA



Done Jakue kaleko albergua egokitu eta txukundu da.

Aurrekontua: 5.000 Euro

Kirol txapeldunei, merezitako harrerak

Kirolerako zaletasun handia da Azpeitian eta zaletasun horrek, kirola asko praktikatzera eramaten ditu azpeitiarrak. Gustukoa izateaz gain, ordea, emaitza bikainak izatera heltzen dira askotan. Horren adibide ditugu Ainhoa Goenaga, Ainara Torvisco eta Asier Cuevas. Goenaga igerilariak junior mailako Espainiako Txapelketan urrezko domina irabazi zuen, Torvisco aurtengo kick boxing-eko Espainiako txapelduna da eta Cuevas korrikalaria, berriz, 100 kilometroko Munduko Txapelketan azpitxapelduna da. Hirurei harrera egin zaie Udalean eta irabazlearen txapela eman zaie. Zorionak hirurei!



Oroimenaren garrantzia

Urte luzez azpeitiarrak borroka asko egin behar izan dute herriaren eta askatasunaren alde. Horien artean daude Basilio Urbistondo eta Angel Otaegi eta Azpeitiko Udalak ez ditu ahazten. Honela, Urbistondo gudariari harrera egin zaio guda garaian egindako borroka eta lana eskertzeko. Bestetik, irailaren 27an 40 urte bete ziren Angel Otaegi fusilatu zutenetik eta ekitaldian parte hartu zuen Udalak.



AZPEITIA

2015

URRIAK 31, larunbata
11:30etik 14:30era
plaza nagusian

X. LIBRE ardo dastaketa eguna



EUSKAL HERRIKO 3. TXORIZO EGOSI LEHIAKETA

Upategiak

JACOB'S CREEK (CHARDONNAY)	Australia
ENATE (CHARDONNAY)	Salas Bajas
ENTREFLORES (BERDEJO)	Pozaldez
INURRIETA ORCHIDEA (SAUVIGNON BLANC)	
INURRETA CUATROCIENTOS(Ondua)	Falces
(CABERNET SAUVIGNON- MERLOT)	
ZINIO (Ondua) TEMPRANILLO	Uruñueia
SEÑORIO DE UÑUELA (Erreserba)	
TEMPRANILLO	
BORDON (Ondua)	Logroño
(TEMPRANILLO-GARNACHA)	
CONDE VALDEMAR (Ondua)	Oion
(TEMPRANILLO)	
UGARTE (Ondua)	
(TEMPRANILLO-GARNACHA)	
UGARTE (Erreserba)	Biasteri
(TEMPRANILLO-GRACIANO)	
MEDRANO IRAZU (Ondua)	Elvillar
(TEMPRANILLO)	

RIOJA VEGA ED.LIMITADA(Ondua)	Viana
(TEMPRANILLO-GRACIANO)	
AZPILICUETA (Ondua)	Logroño
(TEMPRANILLO-GRACIANO-MAZUELO)	
LUIS ALEGRE(Ondua)	Biasteri
(TEMPRANILLO-GRACIANO-CARNACHA)	
BARON DE LEY (Erreserba)	Mendavia
TARSUS ROBLE (TINTA DEL PAIS)	Anguix
VIZCARRA SENDA DEL ORO	Mambrilla De Castrejon
(TINTO FINO)	
PIEROLA (Ondua/ Beltza)	Moreda
TRASLASCUENTAS	Valladolid
CYATHO (Berdejo)	
OSTATU (Txuria,gorria,urtekoa,ondua)	Samaniego
CERRO AÑON (Txuria, Ondua)	Logroño
SOLAGUEN (Ondua)	La Bastida
COMPANON ARRIETA	Lantziego
(Txuria, Beltza, Gorria)	
BODEGAS MURO (Ardo Gaztea)	La Puebla de la Barca

